



Kaixo,

GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIEN FESTAREN egitarauan ikus dezakezen bezala, aurtengo festan berrikuntza batzuk sartu ditugu. Berrikuntza gisa ere, **aurtengoan IKT eta Sare sozialen erabilpenaren aurrera pausu bat egiten saiatu gara.**

IKTen erabilpenaren adibide gisa, festa egunean, Olaberria, herrian zehar, **QR kodeak** topatuko dituzue. Kode hauek, festaren egitaraua, txokoaren kokapena, flashMobaren koreografia, Olaberria2013ko abestiaren letra, ... kontsultatzeko aukera emango dizue. Hauen erabilpena egin ahal izateko, zuen smarthonetaren QR kodeak irakurtzeko gai den aplikazioaren bat instalatuta ekartzea gomendatzen dizuegu. Asko dira eskuragarri eta dohain daudenak plataforma ezberdinetarako (Android, IOS, ...).

Sare sozialei dagokionez, **Facebookeko** gure orrian (<https://www.facebook.com/Olaberria2013>) **GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIEN FESTA** izeneko **jarduera** sortu dugu. Facebook erabiltzaileak zaretenoi, jardueraren honetan "bertaratuko naiz" botoia sakatzeko eta bide batez zuen lagunak "gonbidatzea" eskatzen dizuegu **GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIEN FESTA jarduerak** ahalik eta hedapen handiena izan dezan.

Twitterren ere bagaude eta **#Olaberria2013** hashtag-a erabiliaz festaren inguruko bizipenak edo denadelakoak idatzi/txertatu/argitaratu ahal izango dituzue bertan. Hirugarren sare sozial batean ere egongo gara eta **Google+** izango dugu hau. Hemen ere GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIEN FESTA jardueraren sortu dugu. Jarduera honen bidez, festan dagoen edonork, jardueraren zehar ateratako argazkiak denbora errealean partekatzeko erabili nahi dugu. Jarduera honetan parte hartu ahal izateko, Google+ kontu bat edukitzeaz gain ondorengo pausuak eman beharko dira:

· Dagoneko, jardueraren orrira joan zaitezke (<https://plus.google.com/events/cr9cf9n4oaihfg9obv6jckkchc0>) eta bertan izango zaretela adierazi behar duzue, orrian bertan dagoen aukera baten bitartez. (jarduerara sartzeko beste modu bat Google+-en bilatzailean GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIEN FESTA bilatuaz izan daiteke)

· Aurreko pausia eman baduzue, jardueraren hasierarekin batera, honen berri ematen dizuen jakinarazpen bat jasoko duzue zuen mugikorrean eta bertan jarduerara etorri zaretela adierazi beharko duzue:

- o **Android-dun smartphone** bat duzenok, markatu ezazue "Modo Fiesta" aukera. Hori horrela eginez gero eta besterik gabe, jardueraren zehar ateratako argazki guztiak GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIEN FESTA jarduerara igoko dira denbora errealean eta plazako eszenatokian egongo den pantaila batean ikusi ahal izango ditugu.
- o **Android EZ** den sistema eragilea duzenok, orrialde honetan agertzen zaizuen argazki kamara ikonoa sakatu beharko duzue, argazki bat partekatu nahi duzen bakoitzean.

Festa egunean bertan, gune jakin batzuetan, behar bezala identifikaturik, **kontu hauetan laguntza eskainiko duten pertsonak izango dira.**

Berrikuntza hauek gustokoak izango dituzuelakoan agurtzen zaituztegu.

Ondo izan.

komunikazioa2013@kuttunolaberria.org

PROTOKOLO ETA KOMUNIKAZIO BATZORDEA
GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIEN FESTA 2013

KUTTUN-ZEBA GURASO ELKARTEA
O L A B E R R I A
www.olaberria2013.org

